

## **6. BEZEROEKIKO HARREMANAK**

***Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?***

Guretzako oso garrantzitsua da bezeroekiko harremana eta hauek ondo zerbitzatuak egotea. Horregatik, mota askotako harremanak kontuan hartu ditugu.

Laguntza pertsonala eta laguntza pertsonal eskainiari dagokioenez, gu laurok laguntza pertsonala emateko prest gaude. Adibidez, dendetan, bezero batek zalantzarik badauka edota ez badaki zer komeni zaion erostea egoera finko batean, gu laguntzeko eta iritzia emateko prest egongo gara. Hortaz gain, ahalik eta hoberen asetzeko bezeroaren beharra, honek eskatutakoa lortzen saiatuko gara. Irakargietaz gain, gure sare sozialen bitartez (Facebook, Instagram eta Twitter) nolabaiteko gertutasuna eta konfidantza transmitituko diegu bezeroei, edozein galdera edota zalantzak erantzuteko prest egonda. Gainera, lehen aipatu dugun bezala, bazkide txartela izanda %10eko beherapena izango dute bigarren erosketatik aurrera.

Azkenik, edozein zalantza argitzeko prest egongo gara deiak edo korreoan mezuak jasotzeko.